



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

## **Batzar Nagusiek dolua adierazoten dabe Iñaki Azkunaren heriotza dala-ta**

Bilbon, 2014ko martiaren 21an.

Batzar Nagusietako Lehendakari andreak bat egiten dau Iñaki Azkuna Bilboko Alkatearen heriotzak eragindako saminagaz. Madariaga andrearen esanetan, Azkunak inork baino hobeto jakin dau “bilbotarren izaera berezia ulertzen” eta azken hamabost urteotan Bilbon alkate izan danagaitik esan dau “lehenagokoen moduko gizona izan dala, elegantea, hurkoa, langilea, heterodoxoa, oso-osokoa, “bilbotar” izateagaz harro, nahiz eta hainbeste maite eban Durangon jaio”.

Batzar Nagusietako Lehendakariaren ustez, Azkunak ondo baino hobeto bultzatu dau “uri edegiaren eredu, atsegina eta onesgarria, oinez ibilteko uria, disfrutateko, lan egiteko eta biziteko izan behar dauena; Bilboren eraldaketeak mesede egin deutso Bizkai guztiari, baina Bilbok berak be ondo baliatu ditu Bizkaiaren ahalmen guztiak”.

Bizkaiko gizartearen alde guztietatik eta Bizkaitik kanpo be adierazotako dolu, samin eta atsekabeagaz bat egiten dabe Batzar Nagusiek. Azkunak erakutsitako bilbotar izaera nabarmena muguz haraindi zabaldu da, “munduko alkaterik onena” izateraino nonbait.

Minbiziaren aurka hamar urte luzez izan dauen burrukea be “adibide izan da bere moduan egoera mingarrian dagozan pertsona askorentzat”. Madariaga andrearentzat, Azkuna “ordezkatu ezinekoa” da.

Gaur goizean Bilbon izan dan Herri Lan eta Garraioetako Batzordearen bileran doluminak agertu dabez Batzarkide-Talde guztiek Iñaki Azkunaren heriotza dala-ta, eta alkartasuna erakutsi deutsee etxekoei, lagunei eta alderdikideei. Batzarkideren batek gogoratu dauen moduan, "Azkuna espiritua" Bizkaiko legebatar honetan gure artean dago, herritarren alde lan egiten dan leku honetan, herritarren aldekoa zan berea-ta.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales muestran sus condolencias por el fallecimiento de Iñaki Azkuna**

En Bilbao, a 21 de marzo de 2014

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, se ha sumado al dolor que ha causado la muerte del Alcalde de Bilbao, Iñaki Azkuna, de quien ha dicho que ha sabido conectar "como nadie con la personalidad arquetípica de los bilbaínos", calificando al regidor de la capital vizcaína durante los últimos 15 de años de un "caballero a la antigua, elegante, cercano, trabajador, espontáneo, heterodoxo, orgulloso de un "bilbainismo" que le permitió nacer en su querido Durango".

Para la presidenta de las Juntas Generales, Azkuna ha sabido "impulsar un modelo de ciudad abierta, acogedora y amable, una ciudad para andar, disfrutar, trabajar y vivir, cuya transformación potencia a Bizkaia y que también sabe beneficiarse de las potencialidades de nuestro territorio".

Las Juntas Generales se suman a las innumerables muestras de dolor, tristeza y condolencias expresadas desde todos los ámbitos de la sociedad vizcaína; pesares que han llegado desde fuera del territorio, ya que su marcado carácter bilbaíno traspasó fronteras hasta convertirse en el "mejor alcalde del mundo".

Su obstinada lucha contra el cáncer durante una larga década ha sido también "un ejemplo para muchas personas en su misma dolorosa situación". Para Madariaga, la figura de Azkuna "no podrá ser sustituida".

Todos los grupos junteros han mostrado sus condolencias en la comisión de Obras Públicas y Transporte celebrada esta mañana en Bilbao y se han solidarizado con familiares, amigos y compañeros de partido. Como ha recordado algún juntero, el "espíritu de Azkuna" ha querido estar presente en el parlamento vizcaíno, lugar donde se trabaja, "como lo hizo él, por el bienestar de la ciudadanía".